

AGUR ETA OHORE, AITATXI!

Ez nuke nahi egun honetan zure irudiaz, zure izateaz, hau da, zutaz deus esan gabe pasatzerik. Duela zazpi urte hegaltatu zinen gure artetik eta egia esan, ahaztezina bazaitut ere eta nire inguruko jende asko eta askok zurekin mintzatzeko paradarik ukan ez zuenez, zertxobait aipatu nahi dut, azaletik bada ere.

Haurtzaroan laborantzan eta geroxeago kontrabandan ikasia zinen (Oroitzen al zara zerri-kontrabandaz mintzo zinelarik zerria beti zerri eta salatari-aren gertaera kontatzen zenidanean zenolako irriak egiten genituen?)

Hamalau urtez geroz idazten hasia zinen; antzerkia, olerkia, etab. Gerla ondorengo antzerkigilerik oparoenatarikoa zinen, horrekin batera antzerki mogimendua zuzpertzuz, eta kazetari eta irratigintza lanetan aritua.

Alemanen aurkako gerlan gudari izana lehen lerroetan eta hiru urtez mugan ixilka frantsez erresistentziaren alde lan egitez gain, apez-lanetan Hazparneko langile, laborari, arrantzaleen kontseilaritzat hartua.

Eta horrekin batera Euskal Herriko arazoez kezkatu, zure bizitza berorren alde eskaini arte. Errotik abertzalea eta era berean zure abertzaletasuna kutsatzen zenekiena. Oroitzen naiz halako batean esaten zenuela: *Etsaiez-inguraturik nabilenez, ene beldurra ez da etsaiek tiroz hilko nautela, baizik eta preso harturik torturatu eta torturapean, aitor araziko dizkidatela ene sekretu sakratuenak. Hots, lagunak salbatzeagatik nahiago bizitza galdu sekretuak salatu baino. Horrelakoa zinen aitatxi!*

Bakezale zinen, zintzoki bakezalea, eta tinko eutsi zenion borrokari benetazko bakea lortu nahirik, horregatik zenion: *Populu batean jarri nahi bada egiazko bakea, onartu beharko zaizkio bere-berezko dituen eskubideak, eta lehen lehenik bere burua berak gobernatzeko duen eskubidea. Zeren eta, populu bat zapalduz jarririko bakea ez baita erdi-bakea baizik. Euskadiko hisotria dugu lekuko gaur borrokan ari bagira, gure gurasoek eta gurasoen gurasoek ez zutelakotz lortu zinezko bakerik. Beraz, ez dezagun nolana hizko bakerik firma, holako bake bat bailitake, berriz ere, gure ondokoz entzat gerla-iturri.*

Beste kezka bat ere bazenuen nahiz eta askotan esaten zenuen ez zenuela ikusiko agian eta hauxe zen: Euskadi askatzeko egunak aurrerantzean nolakoak izango ote ziren; *Odol isurtzeak, basakeriak eta sufrikario egunak gerta ez dakizkigun, burua hotz eta besoa fermu dugula ihardoki, etor ditazken herraolatuari.*

NERE MENDIXKATIK liburuko azken hitzaldiko aipamenak eginez bukatuko dut zurekin ametsetan pasatako unea:

Ikusiz zertan den oraindik gure Euskadi, ez gira Espainiarekin bakea finkatzeko bezperan. Oraindik beharrezkoa da nere iritziz, makila eukitzea esku-menean, sukal-

de xoko batean, gure etxerat sartu nahi luketen zakurren haizatzeko. Ez gaiten biluz, biluztea gure kaltetan ditakena.

Horrenbertze kezka, pairamen eta odolez egin dugun gerla, irabazixea dugu. Partidaren azken tantoetan gira. Ez dezagun bakea gal! Euskadiko tratulariak ari dira Madrilekin tratuan, bakea egiteko. Tratua nolako gure geroa halako. Gaurko tratu txarrak, gure haurrentzat bihar nigarrak. Euskaldun karlixtek beren hiru gerletan (1839-1872-1936) tratu txarra eginik Madrilekin, berriz behar izan zuten gerlari lotu, ondoko urteetan. Ez gaitezen huts bererat eror.

Bakeak, iraunkorra izaitzekotz, eskatzen ditu baldintza zenbeit. Heietarik bat da gudariekin edo bederen heien baimenarekin sinatua izan dadila. Gerla guztiak bukatzen dira edo gudarien arteko hautsimautsi batez edo gudarien alderdi batek bertzea lehertuz. Francok, Aleman eta Italianoek laguntzaz, lehertu zuen euskal armada 1936ko gerlan eta bakerik ez zuen sinatu. Hortakotz gerla berriz piztu da. Sustrai berek dirautena, ondorio berak hezur-mamituko dira.

Bertze puntu bat ere bada baitezpadakoa, nahi bada muntatu bake iraunkor bat. Hura da, bakea izan dadila librea, ezkontza bezala. Ez dadila izan Madrileko nagusiak, Euskadi bere zerbitzariari eskaintzen dion fabore bat. Hortakotz, tratuan sartu aurretik, Madrilek jakin araz dezala eta goraki aitor, gu girela populu libre bat. Badugula geronek gure burua gobernatzeko eskubidea. Gure tratuak izan daitezela Euskadiko eta Madrileko bi gobernu berdin libroen artean. Hortarik baizik ez daiteke sor bake iraunkorra.

Hirugarren puntu bat ere ezinbertzezkoa da bake sakon bat oinarritzeko. Hura da, populu guztiak eta bereziki auzo direnak; elkarri lotzea anaitasunezko lokarriez. Ez sendimendukeriazko anaitasun errazki aldakor batez, bainan populuak beren bizipidea hobetzeko egiten dituzten antolaketez.

Gerla ixiltzea ez da aski bakea loratzeko. Loratze horrek eskatzen du etengabeko lana, beti baita zerbait hobetzeko gizon eta populuen bizieran. Uste dut, Euskadik balu beregaintasuna sail batzuetan bide erakusle litakela bertze populu zenbaitentzat.

Madrileko gobernuak bukatuko balitu bere bihurrikeria eta jikutriak gauzak argituko eta sanotuko lirake, euskaldunak gure artean zatikatu beharrez.

Madrilek erabaki dezala: **Uzten ditut Euskaldunak bere gain!** Ni segur naiz, gaizki doatzin gauza asko, laster zuzen litezkela. Espainia eta Euskadiren onetan. Baina itxaropen ttikia dut holako miraririk gerta daitekeenik.

Horrela mintzatzen zinen, aitatxi! Apez abertzale eta bakezale bezala. Beti zenuen hitz goxo bat, alaitasunez betea, bertso kantaria, abertzale lagunon jokabide argitzailea eta herri borrokaren behar eta edertasunaren irakasle sutua. Mila esker.

Agustina Pontesta